

SAN TOMAS IZENAZ LEKUKOTASUNAK

*Durango, 2003ko abenduaren 24ean,
Gabon goizean.*

*Jose Luis Lizundia Askondo,
euskaltzaina.*

Aintzin oharra:

Idazle ezagun eta on batek, baina Euskal Herriko Onomastika tradizioa eza-gutzen ez duenak, nonbait, euskal arau akademikoetan SAN TOMAS erabaki zelako, kritika moduko bat egin berri du. Gaztelaniaz, hiru santuri «Santo» jar-tzeak, hots, «Santo Tomás», «Santo Toribio» eta «Santo Domingo» ez dakar, on-dorioz, euskaldunok horrela deitu behar diogunik Zuberoatik Enkartzioetaraino, eliz administrazio hizkera oficial erdaldunduak bere eragina izan badu ere. Gi-puzkoako Probintzian bertan, mendetako hedadura duen Arrasateko feria fama-tuei leinztarrez «*Santamasak*» deitu eta deitzen diote, ez «*Santotomasak*», pa-rrokiako predikuetan azken honen erregistroan entzun arren. Ipar Euskal Herrian gaztelaniazko hagianomastikak ez du izan, baina Bizkaiko bi herritan, hain zuzen santu hori zaindari duenetan ikerketa xume bat egin dugu. Nafarroan ez dugu egi-terik izan, egungo eremu euskaldunean ez dagoelako santu horri eskainitako pa-rrokiarik. Emandako idatz arauaren oinarriak sendotzeko bertako herritarrekin ikerketa bat egin dugu, orain *Euskera* agerkarian argiratzea nahi izan dugularik, behar den lekukotasunerako.

* * *

Lehendabizi, Juan Ignacio Intxaurreagari deitu diot Zeberioko bere etxera.

Intxaurreaga jauna zeberioztarra da sortzez eta bertan bizi da. 12 urtetan bere jaioterriko alkate izana; lehenago, Jose Maria Makua Bizkaiko diputatu nagusiaren idazkari eta Jose Antonio Ardanza, lehendakariaren Kabinete bu-rua. Ikasketaz, Zuzenbidean lizentziatua; lanbidez, Bizkaiko Foru Ogasunean, Ondare arloko legelaria.

Euskalgintza munduan bertsolari bezala aritua, alfabetatze-euskalduntze mugimendu garaian irakasle ibilia, *Euskalduntzen* libururuen egiletarikoa. Ezizenez «*Koxoa*», alegia, arratieraz 'errena'.

Jakinik herriko parrokia «Santo Tomás de Olabarrieta» dela.

Elkarrizketa honela izan zen:

- Zuen parrokiaren izena zelan dok euskeraz?
- Parrokie.
- Baina «Santo Tomás de Olabarrieta» euskeraz zelan deitzen deutsazue?
- Etxeutsagu deitzen gaurko elizari, baina ermitari, segurutik antzinako parrokia izango zanari *San Tomas Zarre*. Hain zuzen domekan (abendua-ren 21 zan) izan zuan jaija eta *San Tomas*en emon joian mezea.
- Eta Santo Tomas zer dok bada?
- Parrokiako seilua, ze monagillo eta seminarista be izana nok. Udaltxean be askotan holan ikusi juat. Erderaz jakina, hik ondo dakit euskera ez dala izan gure hizkuntza ofiziala oraintxurarte, ez udal administrazioan, ez elizako erregistroetan.

* * *

Bigarren, Agustin Barruetabeñari deitu nion bera bizi den etxera, Ziortza-Bolibarko *Kanterape* baserrira.

Barruetabeña jauna herriko txistularia, Markina-Xemeingo zinegotzia urte askotan. Ziortza-Bolibar elizatea frankismo garaian Markinako uriak bereganatu zuen.

Jakinik herriko bi parrokiak, «Santa María de Cenarruza» (Ziortzako Andra Maria kolegiata famatua) eta «Santo Tomás de Bolívar» dirala, elkarrizketa honela izan zen:

- Zuen herriko jaiak zelan deitzen dozuez?
- Udako jaiak «San Juan jaixek» eta negukoak, joan den astekoak «*San Tomas* jaixek».
- Eta Santo Tomas zer da zuretzat?
- Ba, izen ofiziala eta hik badakik ofizialtasuna oraintxurarte erderak bakarrik izan dabela. Oraintxe konturatu nok Santo Tomas erabili dogula paperetan, baina txistulari legez ibili nazenean, «herrixen txistue San Juen jaixetan eta *San Tomas* jaixetan jo juat beti».